

DIRULAGUNTZA-PROGRAMEI BURUZKO EBALUAKETA 2019

LEHENDAKARITZA

1. Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako tokiko erakundeek bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programak eta ekimenak garatzeko dirulaguntzak	2
2. Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuen proiektuak finantzatzeko dirulaguntzak	3
3. Tokiko bizikidetzaren esparruan elkarrekin bonuen programa	4
4. Hezkuntza arloko Elkarrekin Bonuen programa.....	5
5. Herritarren parte-hartzearen arloko Elkarrekin Bonuen programa.....	6
6. 2019ko euskal etxeentzako dirulaguntzak	7
7. 2019ko egoera larrian dauden pertsonentzako dirulaguntzak	8
8. Gaztemundu 2019	9
9. Gazteak Kanpo Ekintzaren arloan prestatzeko bekak	11
10. Quebec eskualde estrategikoarekin lankidetzaren teknikoan aritzeko proiektuentzako laguntza-programa, 2019-2020 aldirako	12
11. Europako ikerketa-proiektu traktoreak Horizonte 2020 Programaren bigarren faseko deialdietara aurkezteko laguntzak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agenteak buru direla	14



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako tokiko erakundeek bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programak eta ekimenak garatzeko diru-laguntzak

2.- Araua

57/2018 DEKRETUA, apirilaren 24koa, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuetarako diru-laguntzak arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

57/2018 DEKRETUA: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802397e.pdf>

EBAZPENA, 2019ko martxoaren 22koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez elkarbizitzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak burutzen dituzten Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta gainerako toki-entitateentzako diru-laguntzak ebazten baitira. (EHAA 62.zk. 2019ko martxoaren 29koa).
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/03/1901599e.pdf>

EBAZPENA, 2019ko irailaren 2koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko udalek eta gainerako toki-erakundeek bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan garatzen dituzten programak diruz laguntzeko deialdia ebazten duena. (EHAA 202.zk. 2019ko urriaren 23koa).
<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/10/1904896e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Ebazpen honen helburua da Euskal Autonomia Erkidegoko udal eta gainerako toki-entitateen proiektuak finantzatzeko diru-laguntzen deialdia egitea. Proiektu horiek gure gizartean bizikidetzaren kultura, giza eskubideen errespetua, eta enpatia eta elkartasuna bultzatu behar dituzte.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Guztira, 57 proiektu diruz lagundu dira. Proiektuok 30 udalerritakoak dira. 250.000 euro banatu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Erakunde parte-hartzaileen zenbakia	40	30



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Irabazi-asmorik gabeko erakunde pribatuen proiektuak finantzatzeko diru-laguntzak

2.- Araua

57/2018 DEKRETUA, apirilaren 24koa, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuetarako diru-laguntzak arautzen dituena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHA Ari Hiperesteka)

57/2018 DEKRETUA, apirilaren 24koa, bizikidetzaren eta giza eskubideen arloko proiektuetarako diru-laguntzak arautzen dituena. (EHA 85. zb., 2018ko maiatzaren 4koa)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2018/05/1802397e.pdf>

EBAZPENA, 2019ko martxoaren 21ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez elkarbizitzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak burutzen dituzten irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuentzako diru-laguntzen deialdia egiten baita. (EHA 62.zb., 2019ko martxoaren 29koa)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/03/1901598e.pdf>

EBAZPENA, 2019ko irailaren 5ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez ebazten baita bizikidetzaren eta giza eskubideen arloan proiektuak burutzen dituzten irabazteko asmorik gabeko erakunde pribatuentzako diru-laguntzen deialdia. (EHA 174.zb., 2019ko irailaren 13koa).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/09/1904191e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Gure gizartean bizikidetzaren kultura, giza eskubideen errespetua, eta enpatia eta elkartasuna bultzatzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Guztira, 225 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak. Proiektuok 115 erakundek aurkeztu dituzte. 600.000 euro banatu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Programan parte hartu dutenen elkarteen zenbakia	70	115



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Tokiko bizikidetzaren esparruan elkarrekin bonuen programa

2.- Araua

110/2014 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

110/2014 DEKRETUA:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2014/06/1402724e.pdf>

EBAZPENA, 2019ko apirilaren 10ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez tokiko bizikidetzaren esparruko Elkarrekin Bonuak Programaren 2019ko deialdia egiten baita. (EHAA 83. zk, 2020ko martxoaren 12a).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/05/1902092e.pdf>

EBAZPENA, 2020ko otsailaren 26koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez jakinarazten baita zer erakundek jasoko dituzten tokiko bizikidetzaren arloko Elkarrekin Bonuak Programaren 2019ko laguntzak. (EHAA 50. zk, 2020ko martxoaren 12a).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/03/2001509e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa honen bidez, diru-laguntzak jasoko dituzte bizikidetzaren eta gizarte-topaketaren kultura berri bat bultzatzera bideratutako proiektuek, baldin eta egitasmo horiek batera sustatzen badituzte irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta hiru arlo hauekin lotutako erakunde publikoek: hezkuntza, udaletako errealitatea eta herritarren parte-hartzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Guztira, 34 proiekturi eman zaizkie diru-laguntzak; proiektuok 15 erakundek aurkeztu dituzte eta 23 udaletxetan egin dituzte. 97.230 € banatu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diru laguntza jaso dute proiektu kopurua	25	34
Parte hartu duten erakunde onuradunak	10	15



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Hezkuntza arloko Elkarrekin Bonuen programa

2.- Araua

110/2014 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

110/2014 DEKRETUA: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2014/06/1402724e.pdf>

EBAZPENA, 2019ko apirilaren 10ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, Elkarrekin Bonuak Programaren 2019ko deialdia egiten duena, hezkuntza arloan. (EHAA 83. zk, 2019ko maiatzaren 6a).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/05/1902091e.pdf>

EBAZPENA, 2020ko otsailaren 26koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez jakinarazten baita zer erakundek jasoko dituzten hezkuntza-arloko Elkarrekin Bonuak Programaren 2019ko laguntzak. (EHAA 50. zk, 2020ko martxoaren 12a).

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/03/2001508e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzak jasoko dituzte bizikidetzaren eta gizarte-topaketaren kultura berri bat bultzatzera bideratutako proiektuek, baldin eta egitasmo horiek batera sustatzen badituzte irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta hiru arlo hauekin lotutako erakunde publikoek: hezkuntza, udaletako errealitatea eta herritarren parte-hartzea.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Guztira, 166 proiekturi eman zaizkio diru-laguntzak; proiektuok 21 erakundek aurkeztu dituzte eta 149 eskolatan egin dituzte. 349.550 € banatu dira.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diru laguntza jaso dute proiektu kopurua	160	166
Parte hartutako erakundea onuradunak	20	21
Parte hartu duten ikastetxeak	70	149



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Herritarren parte-hartzearen arloko Elkarrekin Bonuen programa

2.- Araua

110/2014 DEKRETUA, ekainaren 17koa, Elkarrekin Bonuen Programa arautzen duena.

EBAZPENA, 2019ko apirilaren 10ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez herritarren parte-hartzearen esparruko Elkarrekin Bonuak Programaren 2019ko deialdia egiten baita.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

110/2014 DEKRETUA: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2014/06/1402724e.pdf>

EBAZPENA, 2019ko apirilaren 10ekoa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez herritarren bidez herritarren parte-hartzearen esparruko Elkarrekin Bonuak Programaren 2019ko deialdia egiten baita: <https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/05/1902093e.pdf>

EBAZPENA, 2020ko otsailaren 26koa, Biktimen eta Giza Eskubideen zuzendariarena, zeinaren bidez jakinarazten baita zer erakundek jasoko dituzten herritarren parte-hartzearen arloko Elkarrekin bonuak Programaren 2019ko laguntzak.

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2020/03/2001510e.pdf>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Programa horren bidez, diru-laguntzak jasoko dituzte bizikidetzaren eta gizarte-topaketaren kultura berri bat bultzatzera bideratutako proiektuek, baldin eta egitasmo horiek batera sustatzen badituzte irabazi-asmorik gabeko elkarteek eta hiru arlo hauekin lotutako erakunde publikoek: hezkuntza, udaletako errealitatea eta herritarren parte-hartzea

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

- Emandako diru laguntza 98.110 €
- Emandako bonu kopurua 1.401,57€

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

Adierazlea	Aurreikuspena	Emaitza
Elkarte onuradunak:	10	17
Elkarte hartzaileak		42
Parte hartzaileak (G eta E)		4.232
Finantziatu den proiektu kopurua	25	56



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

2019ko euskal etxeentzako dirulaguntzak

2.- Araua

50/2008 DEKRETUA (EHAA Zk. 69/2008) martxoaren 18koa, euskal etxeentzako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

175/2014 DEKRETUA (EHAA Zk. 176/2014) irailaren 9koa, Euskal Etxeentzako diru-laguntzak emateko araubidea ezartzeko Dekretua aldatzekoa

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

EBAZPENA, 2018ko abenduaren 19koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez deialdia egiten baita 2019an euskal etxeei emango zaizkien diru-laguntzetarako

EBAZPENA, 2019ko irailaren 19koa, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendariarena, zeinaren bidez euskal etxeei ematen baitzaizkie 2019. urteko dirulaguntzak

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Euskal etxeentzako dirulaguntzak ohiko gastuak, jarduerak antolaketak eta azpiegitura eta ekipamendu gastuak finantzatzeko

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

IV. Kapituluari 751.982,20 € esleitu ziren (782.306 € aurrekontuan) 16 herrialdeko 70 euskal etxeetara eta VII. Kapituluari 119.822,13 € esleitu ziren (120.000 € aurrekontuan) 9 herrialdeko 33 euskal etxeetara.

Aurreko deialdietan izandako betetze maila, oro har, ona izan da. Euskal zentroek jaso dezaketen diru laguntza 30.000 €-ra mugatzean, banaketa bidezkoagoa bermatzen da zentro handien eta txikien artean, azken horiek askotan diru laguntzaren baitan geratzen baitira euskal kulturaren difusiorako jarduerak egin ahal izateko.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Inbertsioak egiteko laguntzen kopurua:	10	27
Euskal Etxeen lagundutako jardueren kopurua:	667	699



1.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

2019ko egoera larrian dauden pertsonentzako dirulaguntzak

2.- Araua

222/2003 DEKRETUA, irailaren 30ekoa, Euskal etxeei diru-laguntzak emateko deialdia arautzeko dena. Diru-laguntza horiek atzerrian dauden euskal gizataldeetako partaideak diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsoneri laguntzeko dira

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAARI Hiperesteka)

EBAZPENA, 2018ko abenduaren 19koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez, euskal etxeei diru-laguntzak emateko 2019. urteko deialdia egiten baita, atzerrian dauden euskal gizataldeetako kide diren eta egoera larrian eta asistentzia-faltan dauden pertsoneri laguntzeko

EBAZPENA, 2019ko uztailaren 23koa, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendariarena, zeinaren bidez euskal etxeei dirulaguntzak ematen baitzaizkie atzerriko euskal gizataldeetako kide diren eta egoera larrian eta asistentzia faltan dauden pertsoneri laguntzeko

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Helburua da euskal etxeei laguntza ekonomiko zuzenak ematea, euskal gizataldeetako partaideen asistentzia premiak eta egoera larriak atenditzeko urtean zehar

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

184.559,32 € esleitu ziren (202.000 € aurrekontuan) 7 herrialdeko 17 euskal etxeen 108 familientzako. Batez besteko diru-laguntza: 1.158,84 €

Aurten Kubatik eta Venezuelatik etorritako eskaerak jasotzen jarraitu dugu.

Laguntza horiek oso baliagarriak dira, eta gizarte eragin onuragarria dute kanpoan den euskal komunitatearen sektore kaltetuenetan.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Laguntza jaso duten familia-unitateen kopurua	100	109



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gaztemundu 2019

2.- Araua

316/2003 DEKRETUA, abenduaren 23koa, Gaztemundu programa arautzen duena

38/2015 DEKRETUA, martxoaren 31koa, Gaztemundu programa arautzen duen Dekretua aldatzeko dena

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

EBAZPENA, 2018ko abenduaren 19koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez Gaztemundu programaren 2019. urteko ediziorako deialdia egiten baita

EBAZPENA, 2019ko urtarrilaren 22koa, honako ebazpen honetako hutsak zuzentzeko dena: «Ebazpena, 2018ko abenduaren 19koa, Kanpo Harremanetarako idazkari nagusiarena, zeinaren bidez Gaztemundu programaren 2019. urteko ediziorako deialdia egiten baita.»

EBAZPENA, 2019ko maiatzaren 29koa, Kanpoan den Euskal Komunitatearentzako zuzendariarena, 2019ko edizioko Gaztemundu programan parte hartuko duten pertsonak aukeratzeko dena

EBAZPENA, 2019ko irailaren 5koa, Kanpoko Euskal Komunitatearen zuzendariarena, Gaztemundu Programaren 2019ko edizioan pertsona batek parte hartzeari uko egitea onartzen duena eta bere ordezkaria hautatzen duena

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Hona zertan den Gaztemundu Programa: gazteek egonaldia egingo dute Euskadin, Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek finantzaturik, gaurko errealitatera hurbil daitezten eta gero Euskal Etxeetan isla dezaten. Egonaldi horretan, parte-hartzaileek parte hartu beharko dute eurentzat antolatzen diren lan jardunaldietan, eztabaida foroetan eta kultur guneeetara, erakundeetara eta turismo guneeetara egingo diren bisitetan.

Hauek dira Gaztemundu Programaren helburuak:

- a) Euskal Etxeetako gazteek gaur egungo Euskadiri buruzko heziketa eta jakintza zabalagoa izatea, eta Euskadin lan egiten duten eta bizi diren elkarte, erakunde, enpresa eta pertsonekin harremanak izatea.
- b) Euskadin bizi diren euskal gazteen eta kanpoan bizi direnen arteko harremanetarako guneak sustatzea, eta kanpoan bizi diren euskal gazteak Euskal Etxeetan parte hartzera bultzatzea.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Lortutako emaitzak: 55.000 € 3 herrialde 15 euskal etxetako 15 gazteentzat.

1996an Eusko Jaurlaritzak sortutako Gaztemundu programaren helburua bikoiztua da: gaur egungo Euskadi jakinaraztea eta euskal etxeen batzordeetan gazteak sartzeko bultzatzea. Orain arte, 800 gazte baino gehiago irakatsi ditugu eta gehienak euskal etxeen batzordetan edo erresponzabilitate postuetan daude.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Programako partaideen kopurua:	15	15



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Gazteak Kanpo Ekintzaren arloan prestatzeko beka

2.- Araua

12/2019 Dekretua, urtarrilaren 29koa, gazteak prestatzeko beka Kanpo Ekintzaren arloa.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

Dekretua

Deialdia

Ebazpena

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Beken helburua gazteen prestakuntza sustatzea da Kanpo Ekintzaren esparruan.

Beka horiek hiru modalitatetan sailkatzen dira: Europako Gaiak, Kanpoko Euskal Komunitatea eta Kanpo Harremanak. Beken iraupena 12 hilabetekoa da.

2019an 11 beka deitu ziren.

Prestakuntza Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren bulegoetan egin daiteke, edo Euskadik kanpoan dituen ordezkarietzako edozeinetan edo haien mendeko bulegoetan, deialdi bakoitzean zehazten denaren arabera.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019an, lau beka eman ziren. Horietako hiru Europako Gaiaren eremuari buruzkoak dira. Batetik, Gasteizen garatzeko, eta, bestetik, Euskadik Bruselan duen Europar Batasuneko Ordezkaritzan garatzeko. Kanpoko Euskal Komunitateari dagokionez, ez zen bekarik eman.

Kanpo Harremanei dagokienez, beka bat eman zen Euskadiren Kolonbia, Peru eta Txileko Ordezkaritzarako, Bogotako (Kolonbia) bulegoan.

Beka horien eragin soziala garrantzitsua da, batez ere, gradu-ikasketak egin berri dituzten pertsonentzat. Esperientzia berri bat da prestakuntzaren arloan, Eusko Jaurlaritzan edo Euskadik kanpoan dituen ordezkarietzako edozeinetan edo haien mendeko bulegoetan gauzatzen baita.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Emandako beken kopurua	11	4



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Quebec eskualde estrategikoarekin lankidetzaren teknikoan aritzeko proiektuentzako laguntza-programa, 2019-2020 aldirako

2.- Araua

47/2019 DEKRETUA, martxoaren 26koa, Bazkide Estrategikoen Sareko kanpoko eskualdeekin lankidetzaren teknikoan aritzeko proiektuei laguntzak ematea arautzen duena.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAari Hiperesteka)

47/2019 Dekretua:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2019001625>

Quebec eskualdearekin proiektu teknikoak egiteko laguntza-deialdia 2019-2020 aldirako:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2019003519>

Dirulaguntza emateko ebazpena:

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/es/p43aBOPVWebWar/VerParalelo.do?cd2019004959>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Quebeceko eskualde estrategikoko pertsona juridikoekin egiten diren alde biko jarduerak eta lankidetzaren proiektuak finantzatzeko laguntzak, 2019-2020 aldirako, Euskadik eta Quebecen 2017ko urriaren 31n sinatu zuten elkar ulertzeko memorandumean jasotako gaietan. Hauek dira:

- Kultura: kultura-arloan ezagutza eta esperientzia trukitzea, zehazki, ondarea, artisten mugikortasuna, artisten, sortzaileen edo kultura-industriaren elkartruke profesionalak, eta obrak, ondare-ondasunak eta kultura-produktuak zabaltzea.
- Hizkuntza-politika: beren hizkuntzen garapenera eta sustapenera arloan dituzten adituak eta ikertzaileak trukitzea, eta esparru horretan informazioa eta jardunbide egokiak trukitzea.
- Ekonomia: Euskal Autonomia Erkidegoaren eta Quebec-en arteko negozio-aukerei eta inbertsio-aukerei buruzko informazio-trukeak. Itsasoaren ekonomiaren hazkunde jasangarriari lotuta bakoitzak dituen esperientziak trukitzea.
- Ingurumena: klima-aldaketaren aurkako borrokari eta ingurumenaren babesari buruzko informazioa eta jardunbide egokiak trukitzea.
- Ikerketa, garapen teknologikoa eta berrikuntza: informazioa eta esperientziak trukitzea, eta nazioarteko partzuergoetan baterako jarduerak sustatzea.



5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

Emaitzak: 2019-2020 aldiko deialdian 14 proiektu aurkeztu ziren. Horietariko bat baztertuta geratu zen, ez zuelako Quebeceko kiderik aurkeztu; beste bost kanpoan utzi ziren, ez zutelako gutxieneko puntuazioa lortu. Azkenean zortzi proiektu aukeratu ziren.

Aurrekontuaren betearazpena: Programaren aurrekontua 80.000 €koa izan da. 8 onuradunei eman zaizkie 38.624 €.

Erabilgarritasuna eta eragina gizartean: Deialdi hau Quebeceko eskualde estrategikoari lotuta dauden lankidetzeta-proiektuetarako da; izan ere, eskualde horrekiko harremanetan sakondu nahi da, eta sinergiak bilatu nahi dira bientzat interesgarriak diren eremuetan, Euskadik eta Quebecek 2017ko urriaren 31n sinatu zuten elkar ulertzeko memorandumean jasotzen direnetan, alegia.

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Diruz lagundutako proiektuen kopurua.	16	8



1.- Dirulaguntza-programaren izenburua

Europako ikerketa-proiektu traktoreak Horizonte 2020 Programaren bigarren faseko deialdietara aurkezteko laguntzak, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko agenteak buru direla

2.- Araua

92/2019 DEKRETUA, ekainaren 25ekoa

EBAZPEANA, 2019ko uztailaren 17koa, Lehendakartzaren idazkari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen baita 2019ko ekitaldirako laguntza-programaren deialdia.

3.- Programaren araua, deialdia eta emate-erabakia (EHAri Hiperesteka)

<https://www.euskadi.eus/y22-bopv/eu/bopv2/datos/2019/07/1903243e.shtml>

4.- Dirulaguntza-programaren azalpen laburra eta helburuak

Diru-laguntzen programaren xede nagusia da Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen jardura ez-ekonomikoa babestea, H2020ko bigarren faseko deialdietara Europako Ikerketa Proiektu Eragileak aurkeztera bideratua, Ikerketa eta Berrikuntza Ekintzen (RIA) eta Berrikuntza Ekintzen (IA) modalitatean. Proiektu bultzatzailetzat hartzeko eta laguntza-programan sartzeko, beharrezkoa da Europako proiektua erakunde eskatzaileak koordinatzea, lau milioi eurotik gorako dimentsioa izatea eta, gutxienez, euskal enpresa batek parte hartzea.

Hauek dira diru-laguntzen programaren beste helburu batzuk:

- 1.- ZTBP Euskadi 2020ren intereseko eremuetan Euskadiko I+G+b jardura finantzatuko duten H2020 Programako funtsak erakartzea bultzatzea, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko eragileen bitartez.
- 2.- H2020 programako Ikerketa eta Berrikuntza Ekintzen (RIA) eta Berrikuntza Ekintzen (IA) bigarren fasean euskal eragileek aurkeztutako proposamenen kalitatea eta arrakasta-probabilitatea hobetzea.
- 3.- Europako Ikerkuntza Proiektu traktoreen euskal lidergoa sustatzea, helburuak Euskadiren interes estrategikoetara bideratzeko eta enpresen parte-hartzea bultzatzeko.

5.- Lortutako emaitzak, aurrekontuaren gauzatzea eta eragina gizartean

2019ko deialdian 8 proiektu aurkeztu dira, baina soilik 7k jaso dute diru-laguntza, horietako batek ez baititu betetzen beharrezko baldintzak (eskaera aurkezteko epea igarota zegoen).

Eskaera kopuru txiki horretarako arrazoia hirukoitza izan daiteke:

- 1) Deialdia uztailaren bukaera aldera onartu zelako, eta Europako 2. fasea lehenago aurkeztu zuten proiektu guztiak kanpoan geratu zirelako.
- 2) Euskal erakundeentzat lehentasunezkoak diren gaietan fase bikoitzeko deialdi gutxiago atera direlako.



3) 1. fasea aurreikusitakoek baino proiektu gutxiagok igaro dutelako euskal erakundeen gidaritzapean, dagoen goi-gaitasunagatik eta Europako ebaluazio-prozesuaren baldintza zorrotzengatik.

Laguntza jaso duten 7 eskaeretatik 4k Europako ebaluazioaren 2. fasea gainditu dute. Europako Batzordeak fase honetan onartutako proiektuen batez besteko historikoa 1/4 da (aurkeztutako 4 proiektutik 1 onartu da).

Eusko Jaurlaritzak 2019an programa honetarako eman dituen diru-laguntzen guztizko aurrekontua 200.567 eurokoa da. Europako Batzordeak onartu eta programa honek babestutako 4 proiektuen aurrekontua, 49,7 milioi eurokoa izan da guztira. Euskal bazkideei dagokien eta Europako Batzordeak finantzatuko duen aurrekontua, guztira, 5,6 milioi eurokoa izan da. Onartutako proiektuek Europako 105 bazkideren partaidetza dute guztira, eta batez besteko iraupena 45 hilabetekoa da proiektu bakoitzeko.

Horrela, programaren azken balantzea positiboa dela esan dezakegu; izan ere, aurreikusitakoak baino eskaera gutxiago jaso badira ere, laguntza-programak honako hauetan lagundu du:

- 49,7 milioi euro mobilizatzen Europako funtsetatik (publikoak eta pribatuak), Euskadirentzat lehentasunezkoak diren gaiak ikertzeko; horietatik, 24,8 milioi, gutxienez, ez ziratekeen mobilizatuko laguntzarik izan ez balitz (eransketa-efektua). Horrek esan nahi du laguntza euro bakoitzeko 248 euro mobilizatu direla, eta laguntza euro bakoitzeko 124 euro gehitu behar zaizkiola (124x1).
- Europako Batzordearen 5,6 milioi euro erakartzen Euskadira, eta horietatik gutxienez 2,8 milioi ez ziren etorriko laguntzarik izan ez balitz. Horrek esan nahi du laguntzaren euro bakoitzeko 28 euro erakarri behar direla, laguntzaren euro bakoitzeko 14 euroko gehigarriarekin (14x1).

6.- Dirulaguntza Plan Estrategikoaren adierazle emaitzak

<u>Adierazlea</u>	<u>Aurreikuspena</u>	<u>Emaitza</u>
Lagundutako eskabide kopurua	20	8
Proiektu arrakastatsuen kopurua (eskabideen 1/4)	5 (%25)	4 (%57)
Mobilizatutako funtsen bolumena, guztira	40 milioi	49,7 milioi
EBk finantzatutako euskal aurrekontua	6 milioi	5,6 milioi
Europako funtsen eransgarritasuna Euskadirako	3 milioi	2,8 milioi